

STEAM Sare ARAUTZEKO OINARRIAK

1.	STEAM Sare: Testuingurua eta aurrekariak.	2
2.	Helburua.	3
3.	Indarraldia.	3
4.	STEAM Sareko kideak.	3
4.1.	STEAM Sareren koordinatzailea: Innobasque.	3
4.2.	Entitate Laguntzaileak.	4
5.	STEAM Saren sartzea. STEAM Sareko kide-izaera galtzea.	5
5.1.	STEAM Saren sartzea eta indarraldia.	5
5.2.	STEAM Sareko kide-izaera galtzea.	6
6.	STEAM Sare jardueren katalogoa eta funtzionamendu-dinamika.	6
6.1	STEAM Sare jarduerak diseinatzea eta antolatzea.	6
6.2	STEAM Sare jardueren sustapena eta hedapena.	7
7.	Datu pertsonalen babesa.	8
7.1	Entitate laguntzaileen ordezkarien edo langileen datuak.	8
7.2	Datu pertsonalen tratamendua STEAM Sare jardueren esparruan.	8
8.	Jabetza intelektuala eta industrial.	10
9.	STEAM Sarearen publizitatea eta hedapena.	11
10.	Erantzukizuna.	13
11.	Zuzendaritza Batzordea.	14
12.	Oinarriak aldatzea.	14
13.	STEAM Sare desegitea.	14
14.	Izaera eta jurisdikzioa.	15
15.	Xedapen iragankorra.	15
<u> </u>	1. eranskina. STEAM Saren sartzeko atxikitze-adierazpena	16
<u> </u>	2. eranskina. Jokabide-kodea.	17



1. STEAM Sare: Testuingurua eta aurrekariak.

Zientzian eta teknologian gaitzea funtsezkoa da ekonomiaren eta gizartearen garapenerako. Horregatik, berrikuntzaren aldeko apustua egin duten herrialdeak eta eskualdeak, tartean Euskadi, haien agendetan **STEAM Hezkuntzari** lotutako estrategiak ari dira txertatzen. Akronimo bat da STEAM, eta ingelesezko “*Science, Technology, Engineering, Arts eta Maths*” hitzen lehen hizkiek osatzen dute.

STEAM Hezkuntza aipatutako **bost diziplina** horiek modu integratuan irakastean oinarritutako ikaskuntza-eredu berri bat da. Diziplinartekoa eta aplikatua du ikuspegia, eta trebezia horiek garatzen eta gazteak merkatu baterako prestatzen laguntzen du, kontuan hartuta, merkatuak **zientzian eta teknologian jakintza handiagoa** izatea eskatzen duela, eta horrez gain, **jakintza hori zentzuz, testuinguruan eta sormenez erabiltzeko gaitasuna** ere eskatzen duela.


Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak STEAM Hezkuntzari lotutako proiektuak sustatu nahi ditu **STEAM Sare** erabilita. **Elkarlanerako sare edo sistema** bat da, **nortasun juridikorik gabea**, eta honako hauek ditu helburuak:

- a) Hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa bultzatzea hezkuntzaren etapa guztietan.
- b) Gazteei STEM arloen eta lanbideen inguruko irudi errealista, positiboa eta askotarikoa eskaintzea.
- c) STEM arloan bokazio eta asmo profesionalak piztea, neskei arreta berezia jarriz, etorkizuneko erronkei begira ikasleak behar bezala prestatzeko.
- d) Dibulgazio eta kultura zientifiko-teknologikoa sustatzea euskal herritarren artean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila da STEAM Sareren **sustatzailea**, eta **Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia** (aurrerantzean, “**Innobasque**”), arduratuko da STEAM Sareren **hedatze operatiboaz**.

Aipatutako helburuak betetzeko, Innobasquek, ikastetxe eta eragile sozioekonomikoekin batera, STEAM Sareren esparruan, STEAM hezkuntzako zenbait jarduera eta programa sustatu, koordinatu eta garatzen dit, bai eta STEAM arloko jardunbide egokiak trukatzeko tailerrak ere, DBHko eta batxilergoko ikasgai zientifiko-teknologikoetako ikasleei zuzenduta (aurrerantzean, “**STEAM Sare jarduerak**”).

STEAM Sare jarduerak katalogo batean sartzen dira (aurrerantzean, “**STEAM Sare katalogoa**” edo “**Katalogoa**”). Katalogo hori publikoaren eskura jarrita dago, www.steam.eus web-orriaren bidez eta Innobasquek kudeatu eta koordinatutako beste sustapen- eta hedapen-baliabide batzuen bidez (aurrerantzean, “**STEAM Sare sustatzeko baliabideak**”).



Testuinguru horretan, Innobasquek “*STEAM Sare arautzeko oinarriak*” prestatu eta argitaratu zituen. 2020ko irailaren 1ean jarri ziren indarrean.

Orain arte garatutako operatiba praktikoak egiaztatu du oinarriak **eguneratzeko, sinplifikatzeko eta aldatzeko** beharra dagoela, zentzu honetan:

- a) “Entitate dinamizatzailleak” kategoría (galdu egiten da haien bitartekaritzalana, eta, edonola ere, Innobasquek betetzen du) eta “entitate parte-hartzaileen” zenbait mota (zehazki, eragile sozioekonomikoak) “*entitate laguntzaileak*” (aurrerantzean, “**entitate laguntzaileak**” edo “**entitate atxikiak**) izeneko **kategoría bakar**rean batzea eta haien eginkizunak egoki definitzea.
- b) STEAM Sareren egitura operatiboa eta antolaketa-egitura egokitzea; eta
- c) STEAM Sare jarduerak kudeatzeari buruzko prozedura-aurreikuspen batzuk zehaztea.

Eguneratze, sinplifikatze eta aldatze horren ondorioz, honako oinarri hauek prestatu eta argitaratzen dira.

2. Helburua.

Oinarri hauen helburua STEAM Sare gidatuko duten baldintzak ezartzea da.

3. Indarraldia.

Oinarri hauek 2024ko martxoaren 1ean jarriko dira indarrean, eta mugagabeak izango dira funtsezko baldintzei eusten zaien heinean.


4. STEAM Sareko kideak.

STEAM Sareko kide diren honako entitate hauek hartzen dute parte:

4.1. STEAM Sareren koordinatzailea: Innobasque.

Innobasque da STEAM Sareren koordinatzailea eta hark hartu du bere gain hemen aipatuko ditugun lanak –zehazteko asmorik gabe, eta aipamen gisa baino ez– egiteko ardura:

- a) STEAM Sare sarearen hedapen operatiboa eta aurrekontua diseinatzea eta koordinatzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako jarraibideak betez;

- 
- b) kide berriak erakartzea, STEAM Saren sar daitezen;
 - c) STEAM Sare, orokorrean, eta hura osatzen duten kideak koordinatzea eta entitate laguntzaileen arteko harremanak kudeatzea;
 - d) STEAM Sare jardueren garapena kudeatzea;
 - e) egokitzat jotzen duenean, ekimen mota berriak edo interakzio modu berriak sustatzea STEAM Sareko kideen artean;
 - f) Proiektua garatzeko interesgarriak izan daitekeen informazioa eta gainerako baliabide materialak prestatzea, baliabide propioak erabilia, kanpoko profesionalen laguntzarekin eta/edo entitate laguntzaileekin koordinatuta, eta informazio eta baliabide horiek STEAM Sareko kideei erabilgarri jartzea;
 - g) Entitate laguntzaileei STEAM Sare Jardueren esparruko zereginak behar bezala egin ahal izateko beharko dituzten tresnak ematea;
 - h) STEAM Sare Jardueren Katalogoa prestatu, mantendu eta hedatzea;
 - i) STEAM Sareren hedapen- eta komunikazio-ekintzak garatzea, 6.2 eta 9 oinarrietan zehaztutako baldintzetan; eta
 - j) sarearen jardueraren jarraipena egitea eta STEAM Sareko kideek oinarri hauek betetzen dituztela zaintzea.


4.2. Entitate Laguntzaileak.

Entitate laguntzaileak izango dira atxikipen-idatzia sinatzen duten entitateak. Batez ere honako hauek (zehazteko asmorik gabe, eta aipamen gisa baino ez):

- a) ikastetxeak;
- b) unibertsitateak eta Lanbide Heziketako zentroak; eta
- c) enpresa eta eragile zientifiko-teknologikoak, elkarteak eta lanbide-eskolak, eta administrazioak eta garapenerako agentziak.

Entitate laguntzailearen izaera STEAM Saren sartzeko adierazpena (1. **eranskin**aren arabera) sinatzean eskuratuko da, alde batera utzi gabe 15. oinarrian horri buruz ezarritakoa.

Oinarri hauen xede den lankidetzaharremana STEAM Sareren entitate koordinatzaile Innobasqueren eta sarean borondatez sartzten den entitate laguntzaile bakoitzaren artean ezartzen da.



Entitate laguntzaileek (zehazteko asmorik gabe, eta aipamen gisa baino ez) jarraian zehazten diren jarduketetatik bat, batzuk edo guztiak egingo dituzte:


- a) Innobasquerekin batera, STEAM Sare jarduerak proposatu, diseinatu eta sustatzea;
- b) STEAM Sare jardueretan parte hartzea:
- c) hala dagokionean, STEAM Sarearen hedapen- eta komunikazio-ekintzak garatzea, 9. oinarriarekin bat;
- d) unean-unean aplikatzekoak zaizkien haurrak eta nerabeak babesteko xedapenak behar bezala betetzea indarrean dagoen legeriaren arabera, honako hau barne: entitate horiek, STEAM hezkuntzako jardueretan esku hartzen duten eta haien kargura dituzten profesionali dagokienez, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak eskuratu eta gorde beharko dituzte. Ziurtagiri negatibo horiek ziurtatu behar dute, indarrean den legeriak ezarritakoaren arabera, profesional horiek ez dutela epai irmo bidezko kondenarik jaso sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik.
- e) STEAM Sare jarduerak egiteko beharrezko diren segurtasun- eta osasun-neurriak eta bestelakoak hartzea, baldin eta haien sustapen eta garapenean parte hartzen badute; eta.
- f) Jokabide-kodea (**2. eranskina**) betetzea eta STEAM Sare jarduera zehatzak gauzatzeko izendatzen dituzten irakasle eta profesionalak betetzen dutela zaintzea; eta, haien balizko ez-betetzeak beren gain hartzea.

5. STEAM Saren sartzea. STEAM Sareko kide-izaera galtzea.

5.1. STEAM Saren sartzea eta indarraldia.

Alde batera utzi gabe horri buruz 15. oinarrian aurreikusitakoa, STEAM Sareko kide-izaera 1. eranskin gisa atxikitzen den atxikitze-adierazpena sinatuta lortzen da. Adierazpena steameuskadi@innobasque.eus helbide elektronikora igorri behar da eta Innobasquek onartu eta helbide elektronikoko horren bidez horren berri ematen duenean izango ditu ondorioak.

Indarraldia atxikitze-adierazpen horretan adierazitako epean luzatuko da. Hasierako epea hiru (3) urtekoa izango da eta automatikoki luzatuko da urtebeteko (1) ondoz ondoko aldietan, baldin eta Innobasquek edo entitate laguntzaileak ez badute kontrakorik adierazten unean-uneko aldia amaitu baino bi (2) hilabete lehenago.



Nolanahi ere, entitate laguntzaileak edozein unetan uko egin ahal izango dio STEAM Sareko kide-izaerari. Horretarako, uko egiteko jakinarazpena igorri behar du steameuskadi@innobasque.eus helbide elektronikora.

Uko egite horrek, halakorik gertatuz gero, jakinarazten duen erakunde laguntzaileari bakarrik eragingo dio, eta indarrean jarraituko dute oinarri honen arabera gainerako entitate atxikiekin ezarritako harremanek. Era berean, uko egiten den unean entitate laguntzaileak parte hartzen duen STEAM Sare jardueraren bat gauzatzen ari bada, uko egiteak ez du eraginik izango harik eta STEAM Sare jarduera hori erabat gauzatzen ez den bitartean.

5.2. STEAM Sareko kide-izaera galtzea.


STEAM Sareko kideek kide-izaera galduko dute honako kasu hauetan:

- a) 13. oinarriaren arabera, STEAM Sare bera iraungitzen denean;
- b) hasierako epea edo edozein luzapenen epea amaitzen denean. Horretarako, parte-hartzaileetako edozeinek adierazi behar du, aurretik adierazitako moduan, ez duela luzatzeko asmorik;
- c) entitate laguntzaileak STEAM Sareko kide izaten jarraitzeari uko egiten dionean, aldebakarreko adierazpenaren bidez, aurretik adierazitako baldintzetan.
- d) oinarrien aldaketa bat egiten bada 12. oinarriaren arabera adostuta, eta dagokion entitate laguntzaileak Innobasqueri jakinarazten dionean uko egiten diola STEAM Sareko kide izaten jarraitzeari, oinarri horretan adierazitako baldintzetan; eta
- e) Zuzendaritza Batzordeak adosten duenean entitate laguntzaile bat baztertzea STEAM Sarean sartzean hartutako konpromisoak ez dituelako bete eta ez dituelako osorik bete, edo entitate atxiki horren eta STEAM Sareren arteko interes-gatazka sortzen denean.

6. STEAM Sare jardueren katalogoa eta funtzionamendu-dinamika.

6.1 STEAM Sare jarduerak diseinatzea eta antolatzea.

Entitate laguntzaile batek, Innobasquerekin batera eta STEAM Sareren esparruan, STEAM Sare jarduera zehatz bat sustatu nahi badu, Innobasqueri jakinarazi behar du dio eta haren esku jarri behar du jarduera horri buruzko informazio hau:

- 
- a) Katalogoan sartu nahi den jardueraren deskribapena;
 - b) hartzaileak; eta
 - c) jarduerak hezkuntza-curriculumarekin duen lotura.

Eskaeran eta emandako informazioan oinarrituta, Innobasquek aztertu egingo du era jarduera hori bat datorren STEAM Sareren printzipio eta helburuekin. Irizpide horiekin bat datorrela uste bada, onartu egingo du gehienez ere bi asteko epean, eta sustapen- eta hedapen-jarduketei ekingo zaie, 6.2 eta 9. oinarrietan ezarritakoaren arabera. Zenbait asteko edo hilabeteko jarduerak, katalogoan sartu ahal izateko, STEAM Sare zigilua lortu beharko dute STEAM Euskadi Sarietan aurkeztuta.

STEAM Sare jarduerak onartutzat joko dira baldin eta Innobasquek espresuki adierazi badu eta aldeko irizpena eman badu. Edozein STEAM Sare jarduera ez bada bi asteko epe horretan berariaz onartu, baztertutzat joko da, eta Innobasquek ez du inolako erantzukizunik izango.

Nolanahi ere, onartutako edozein STEAM Sare jarduerak, diseinuari eta garapenari dagokionez, bete egin beharko ditu STEAM Sareren jokabide-kodeko printzipio nagusiak eta arau espezifikoak.

Deskribatutako jardunbidea atxikitze-harremana indarrean dagoen bitartean entitate laguntzaileek STEAM Sare katalogoan sartu nahi duten STEAM Sare jarduera berri bakoitzarekin gauzatuko da.

6.2 STEAM Sare jardueren sustapena eta hedapena.

STEAM Sare jarduera onartu ondoren, aurreko atalean adierazitakoaren arabera, Innobasquek honako jarduera hauek egingo ditu jarduera sustatu eta hedatzeko:

- a) STEAM Sare jarduera hori STEAM Sare katalogoan sartuko du;
- b) STEAM Sare sustapen-baliabideen bidez hedatuko du, eta honako hauek gehituko ditu: STEAM Sare jardueraren erreferentzia, hari buruzko informazio-txostena, eta jardueran parte hartu nahi dutenek aurrez izena emateko/izena emateko egindako eskabideari dagozkion bitartekoak.
- c) STEAM Sare jardueran aurrez izena emateko/izena emateko jasotzen dituen eskabideak kudeatuko ditu eta eskabide horiei buruzko informazioa helaraziko dio jarduera Innobasquerekin batera sustatzen duen entitate laguntzaileari.



7. Datu pertsonalen babesa.

7.1 Entitate laguntzaileen ordezkarien edo langileen datuak.

Entitate laguntzaile bakoitzak STEAM Saren sartzean Innobasqueri ematen dizkion ordezkarien edo langileen datuak Innobasquek, tratamenduaren arduradun gisa, tratatuko ditu entitate laguntzailea STEAM Saren sartzea eta parte-hartzea kudeatzeko. Hori guztia, kontratazio arloan ezarritako legezko betebeharren oinarri juridikoan oinarrituta.

Datu pertsonal horiek Innobasquek bete egin behar dituen legezko betebeharren arabera horien berri izan behar duten entitate, organismo publiko eta/edo hirugarrenei jakinaraziko zaizkie. Testuinguru horretan, ohartarazten da datu pertsonal horiek ematea eta, hala badagokio, erakunde, organismo publiko eta/edo hirugarrenei jakinaraztea beharrezkoak dela; osterantzean, datu horiek emango ez balira eta/edo aipatutako jakinarazpena egingo ez balitz, ezinezkoa litzateke entitate laguntzaileak STEAM Saren parte hartzea.

Datu horiek Innobasquek STEAM Saren duen parte-hartzea behar bezala kudeatzeko behar-beharrezkoa den denboran eta entitate horrek bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar duen kontserbazio-epe osagarrian gordeko dira.


Nolanahi ere, beren datuak ematen dituzten interesdunek eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko eta, hala badagokio, tratamenduaren aurka egiteko eskatzeko, idatzizko jakinarazpena igorrita lopd@innobasque.eus helbidera; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko kontrol-agintaritzza eskudunaren aurrean, bereziki beren eskubideak baliatzean gogobetetzetik lortu ez badute.


7.2 Datu pertsonalen tratamendua STEAM Sare jardueren esparruan.

STEAM Sareren esparruan datuei egiten zaizkien tratamenduak STEAM Sareko kide diren guztiek elkarrekin eta erantzukidetasunez egin direla ulertuko da

Datu pertsonalen tratamendurako erantzukidetasunezko harreman hori eta erantzukideek egiten dituzten datu pertsonalen tratamendu bakoitza honako arau hauen xedapen aplikagarriek arautuko dituzte: (i) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (aurrerantzean, DBEO); (ii) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa (aurrerantzean, DPBEBLO); eta (iii) estatuko edo Europar Batasuneko gainerako araudi aplikagarria

Horiez gain, honako xedapen partikular hauek ere ezartzen dira, DBEOren 26. artikuluan ezarritakoa betez ezarriak:

- 
- a) datu pertsonalen tratamenduaren xede bakarrak (i) STEAM Sareren esparruan programatzen diren jarduerak garatzea, gauzatzea eta hedatzea; eta (ii) interesdunek jarduera horietan parte hartzea kudeatzea izango da;
- b) aipatutako xedeak betetzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak bakarrik tratatuko dira, eta horretarako beharrezkoak diren datuen tratamendurako baliabideak bakarrik (automatizatuak edo ez) erabiliko dira;
- c) interesdunen datu pertsonalen tratamenduak adostasuna izango du legitimaziorako oinarri, eta interesdun horiekin zuzeneko harremana duten STEAM Sareko kideei dagokie adostasun hori eskuratu eta egiaztatzea, DBEOn, DPBEBLOn eta hemen beheko d) atalean ezarritakoa betez;
- d) STEAM Sareko kide bakoitzak, erantzukide den aldetik, bermatu egingo du sarearen esparruan datu pertsonalekin egiten duen tratamenduari aplikagarri zaizkion legezko betebeharrak betetzen direla; eta zehazki:
- interesdunei informazioa emateko eta haiengandik adostasuna eskuratzeko betebeharrak behar bezala beteko ditu, DBEOn, eta DPBEBLOn ezarritakoa betez;
 - ez du interesdunen datu pertsonalik lagako, oinarri honetako aurreikuspenetatik kanpora, baldin eta lagatze hori ez bada, behintzat, legezko betebeharra;
 - ez du tratamenduaren xede diren datu pertsonalik nazioartera igorriko, baldin eta ez badago, behintzat, horretarako betebeharririk, Europar Batasunaren zuzenbidearen edo Espainiako legeriaren arabera;
 - Innobasqueri jakinaraziko dizkio, gehienez ere 24 orduko epean, bere kargura dituen datu pertsonalen segurtasun-urraketak, baldin eta horien berri badu, gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztia barne, eta Innobasque arduratuko da haren kudeaketaz eta, hala badagokio, kontrol-agintaritza eskudunei eta/edo eragindakoei egin beharreko komunikazioak koordinatzeaz; eta
 - bere esku dituen datuen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatuko ditu, egiten duen tratamendu-jarduera zehatza eta tratamendu horrek dituen eskubide eta askatasunentzako arriskuak aintzat hartuta;
- e) interesdunek datuak babestearen inguruan haien eskubideak gauzatzeko egiten dituzten eskaerak modu koordinatuan kudeatuko dira Innobasquek kudeatzen duen lopd@innobasque.eus, helbide elektronikoen bidez, eta Innobasquek



hartuko ditu bere gain, eskaera horiek, erantzukide guztien izenean, koordinatzeko, izapidetzeko eta horiei erantzuteko funtzioak;

- f) erantzukideek komunikazio-kanal iraunkor bat ezarriko dute haien artean, datuak babesteari buruzko gaiak jorratzeko. Horretarako, haien arteko elkarrizketaz erantzukide bakoitzaren datuen babeserako ordezkaria arduratuko da halakorik balego, eta bestela, barneko arduradun bat izendatuko da komunikazio horietarako; eta
- g) azkenik, sareko edozein kidek, edozein arrazoi dela medio STEAM Sare uzten badu, kide horrek (i) ordura arte oinarri hauetan ezarritakoaren arabera egindako datu pertsonalen tratamendua egiteari utzi beharko dio; (ii) Innobasqueri bere esku dituen interesdunen datuen kopia bat eman beharko dio; eta (iii) ezabatu egin beharko ditu bere sistema eta baliabideetan dituen datu pertsonalen kopiak.

8. Jabetza intelektual eta industrial.

STEAM Sareko kide bakoitzaren erantzukizuna izango da bermatzea STEAM Sareri eta gainerako kideei erabilgarri jarritako edozein dokumentu, material, aktibo eta/edo baliabidek ez duela jabetza intelektualari eta/edo industrialari lotutako eskubiderik urratzen, eta ez dutela haiek erabilgarri jartzea eragozten duten inolako konpromisorik eta kargarik, eta beraz, hirugarrenek horri lotuta jar litzaketen erreklamazioen aurrean, erantzukizuna haien gain hartu beharko dute.

Era berean, beharrezkoa denean, sarera dokumentu, material, aktibo eta/edo baliabide horiek ekarri dituen STEAM Sareko kideak nahitaez eman edo eskuratu beharko ditu, iturri baimenduetatik eta sareko gainerako kideen mesedetan, doan, eskusibitatearekin eta besterendu ezinda, elementu horiek erabiltzearen eta ustiatzearen eskubideak, STEAM Sareko gainerako kideek haiek STEAM Sareren jardura-eremu osoan eta legez baimendutako gehieneko epean erabiltzeko moduan. Eskubide horiek STEAM Sareren bidez garatutako jardueren esparruan emandako dokumentu, material, aktibo eta/edo baliabideen erabilerara egongo dira mugatuta.

Era berean, oinarri hauetan STEAM Sareren eta eta STEAM Sarearen jardueren hedapen- eta komunikazio-ekintzei buruz ezarritakoa betez, sarera sartzean, STEAM Sareko kide bakoitzak eskusibitaterik gabeko erabilera-lizentzia bat emango dio Innobasqueri, doakoa eta besterenezina, haien titulartasuneko logotipo, marka eta izen komertzialei buruz, aipatu ditugun hedapen- eta komunikazio-ekintzetan erabil ditzan. Nolanahi ere, aipatutako lizentzia hori ematen duen kidea STEAM Saren egongo den epera mugatuta egongo da (i); eta (ii) aktibo horiek STEAM Sareren hedapenean eta komunikazioan erabiltzera, eta ezingo dira aktibo horiek, aipatutako erabileretz gain, beste inolako erabileretarako erabili.



9. STEAM Sarearen publizitatea eta hedapena.

Innobasquek Katalogoan aurreikusitako jarduera guztien hedapen- eta komunikazio-ekintzak garatuko ditu, egoki irizten dion moduan.

Innobasquek garatu beharreko ekintza horiei kalterik egin gabe, entitate laguntzaileek STEAM Sareko kide direla eta/edo STEAM Sarearen esparruan jarduerak egiten dituztela zabaldu eta horri buruzko publizitatea egin ahal izango dute, STEAM Sareri lotutako logotipoak, markak eta izenak erabilia.

Nolanahi ere, STEAM Sareko kide bakoitzak bermatu egin beharko du horretarako erabilitako komunikazio-euskarriak eta lehen aipatutako aktiboen erabilera ez direla moralaren, Legearen edo ordena publikoaren aurkakoak, eta ez dutela inolako modutan gutxiesten STEAM Sarearen eta/edo bertako kideen izen ona eta/edo irudia, eta Innobasquek gai horretan emandako jarraibideak bete beharko dira.

Horrez gain, STEAM Sareko kide batek STEAM Sarearen testuinguruan programatutako eta/edo gauzatutako jarduera bati lotutako hedapen edo argitaratzerik egin nahi badu, edozein dela ere euskarria, adierazi egin beharko du STEAM Sare Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sustatu eta Innobasquek koordinatzen duela.

Hizkuntzaren erabilera eta funtsezko kontzeptuak

Kanpo-komunikazio ofizial guztiek elebidunak izan behar dute: euskaraz eta gaztelaniaz, eta genero-hizkera inklusiboa erabili behar da.

Sarearekin lotutako funtsezko kontzeptuak erabili ahal izango dira, hala nola:

- STEAM Hezkuntza (ingelesezko Science, Technology, Engineering, Arts and Maths hitzen inizialei dagokien akronimoa). STEAM Hezkuntza ikaskuntza-eredu berri bat da, bost diziplinen irakaskuntza integratuan oinarritzen dena, diziplina arteko ikuspegia eta ikuspegi aplikatua duena, eta trebetasun horiek garatzen eta gazteak lan-merkatu baterako prestatzen laguntzen duena, zientziari eta teknologiari buruzko ezagutza handiagoa ez ezik, zentzuz, testuinguruz eta sormenez erabiltzeko gaitasuna ere eskatzen duena.
- Sarea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatzen duen STEAM Euskadi estrategiaren barruan dago
- Lankidetzaren publiko-pribatua
- Jardueren katalogoa (iraupen laburreko jarduerak, hezkuntza-programak, tailerrak...)
- Ikaskuntzako testuinguru errealak
- STEM lanbideen aniztasuna
- Berrikuntza



Logotipoen erabilera

Entitate parte-hartzaileek komunikazio-euskarriak erabiliko dituzte logotipoak behar bezala erabiliz:

- STEAM Sarearen izena agertzen den edozein euskarri fisikotan (liburuxkak, kartelak, kamisetak...) edo komunikazio-euskarritan (webgunea, newsletterra, sare sozialak...) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren logotipoa egon beharko da.
- Innobasquek antolatzaile bakoitzari erabili beharreko logotipoak eta komunikazio-jarraibideak emango dizkio.

Webgunea

STEAM Sarearen webgune ofiziala <https://steam.eus/es/> webgunean dago. Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Sarea arduratzen da hura mantentzeaz eta eguneratzeaz.

Entitate laguntzaile guztiak STEAM Sare – [Parte-hartzaileak](#) atalean agertzen dira.

Horrez gain, Innobasquek sareari buruzko informazioa zabaldu ahal izango du bere webgunean: <https://www.innobasque.eus/>.

Sare sozialak


STEAM Sareak ez du berezko profilik sare sozialetan. Hala ere, #STEAMsare traola erabili ahal izango da sarearekin edo haren jarduerekin lotutako argitalpenetan.

STEAM Sare sare sozialetan zabaltzen duten entitateek STEAM Euskadi Estrategia aipatu edo etiketatu beharko dute.

Irudien erabilera

STEAM Sare jardueretan parte hartzen dutenen esku-hartzea argazki- eta/edo ikus-entzunezko euskarrian erregistratu nahi denean, ondoren horien hedapenean erabiltzeko, beharrezkoa izango da horiei eta/edo haien guraso/tutoreei alde zuzeneko baimena eskatzea, berariaz eta idatziz, eta behar bezala jakinaraziko zaie irudi horiek nola erabiliko diren eta jarduketara horiek zer datu pertsonal tratatuko dituen.

Parte-hartzaileetako edozeinek material fotografiko eta/edo ikus-entzunezko horretan agertzeari uko egiten badiu, erabaki hori errespetatu egin beharko da, eta horrek ez dio inolako kalterik eragingo jardueran parte hartzeari. Era berean jokatu



beharko da, beharrezkoa izanik, parte-hartzailearen gurasoen/tutoreen baimenik ez badago.

Nolanahi ere, baimen hori doan eman beharko da, eta ezin izango da inolako kontraprestazio ekonomikorik edo ondarezkorik eman; edozein unetan ezeztatu ahal izango da. STEAM Sareko kideren batek baimen horietako bat ezeztatu dela jakiten badu, indarrean dagoen legediaren arabera jokatu beharko du, eta irudi hori erabiltzeari utziko dio. Gainera, egoera horren berri emango die kasuan kasuko irudiak eskuratu dituzten STEAM Sareko gainerako kideei.

10. Erantzukizuna.

Oinarri hauei atxikiz, Innobasqueren eta entitate laguntzaile bakoitzaren eta entitate laguntzaile horien arteko harreman juridikoa pertsona independenteen artekoa eta hirugarrenen aurrean dutena izango da. Beraz, (i) harreman horiek ezingo dira, inola ere, lan-harremantzat, mandatugile-mandatari harremantzat, agentzia, elkarte edo partaidetza bidezko enpresa gisa hartu; eta (ii) STEAM Sareko kide batek egindakoek edo egin gabekoek ezingo dute sortu gainerako kideei hirugarrenen aurrean betebeharririk sortzen dien loturarik

Aipatu dugun horri lotuta, STEAM Sareko kide bakoitzak bere jardueraren funtzionamenduari eta ustiatzeari atxikitako betebeharrak betetzeko ardura izango du, bai legearen, lanaren, zergen arloetan, arlo administratiboan eta finantzetan, baita hirugarren aurrean ere, eta STEAM Sareko kide bakoitzak konpromisoa hartuko du, haiek egindakoagatik edo egin gabekoagatik edozein demanda, erreklamazio, prozedura edo erantzukizun etortzen bada, adierazteko, gainerako kideek eta haien administratzaile, gerente eta langileek ez dutela erantzukizunik.



11. Zuzendaritza Batzordea.

STEAM Sareren esparruan, sareko organo gisa, Zuzendaritza Batzordea arautzen da.

Zuzendaritza Batzordearen ardura izango da:

- a) STEAM Sareren ildo estrategikoak zehaztea, unean-unean indarrean dagoen hezkuntza-politikan oinarrituta; eta
- b) hala badagokio, kideak baztertzea erabakitzea, 5.2 oinarriaren arabera.

Zuzendaritza Batzordea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Innobasquek izendatutako kideek osatuko dute. Hala ere, Batzorde horrek jorratu beharreko gaien espezifikotasun mailaren arabera, Organoan sartu ahal izango dira –hitz egiteko aukerarekin, baina botoa emateko aukerarik gabe– dagokion gaien espezializatutako adituak eta profesionalak.

12. Oinarriak aldatzea.

Innobasquek aldatu egin ahal izango ditu oinarri hauek, justifikatuta, eta horrek ez die kalterik egingo indarrean diren harreman juridikoei eta akordioei, honako kasu hauetan:

- (a) STEAM Euskadi estrategia aldatzea eta aldaketa horrek STEAM Sare egokitzeko beharra sortzea;
- (b) STEAM Sareko kide mota berri bat egotea;
- (c) STEAM Sareko kideei esleitutako funtzioak aldatzea; eta
- (d) STEAM Sareren funtzionamendurako dinamika, oro har, aldatzea.


Aldaketa horiek STEAM Sareko kide guztiei jakinaraziko zaizkie eta, horretarako, atxikitze-adierazpenean adierazitako euskarrira jakinarazpen idatzia igorriko zaio kide bakoitzari. Jakinarazpen horretan adieraziko dira aldaketaren baldintza zehatzak eta aldaketaren arrazoiak.

STEAM Sareko kideek oinarrien aldaketa onartu dutela ulertuko da, baldin eta lehen aipatutako jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean (1), ez badiote Innobasqueri idatziz adierazten uko egiten diotela STEAM Sareko kide izaten jarraitzeari.

13. STEAM Sare desegitea.

Honako hauek izango dira STEAM Sare desegiteko arrazoiak:

- (a) STEAM Sarek oinarri hauetan ezarritako baldintzetan funtzionatzeko ezintasuna;

- 
- (b) STEAM Sareko kide guztiak sarea desegiteko ados jartzea; eta
 - (c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak erabakitzea Innobasquek ez duela jarraituko STEAM Sare koordinatzen.

14. Izaera eta jurisdikzioa.

Oinarri hauek Espainiako Zuzenbide Pribatuarekin arautuko dira eta haren arabera interpretatuko dira.

Oinarri hauek eta oinarri hauetatik etorritako ekintzak interpretatuzetik, aplikatuzetik edo gauzatuzetik sor litekeen edozein eztabaida, zalantza edo gai argitzeko, atxikitako entitateak, haien arau propioei uko eginda, halakorik balute, Bilboko Epaitegi eta Auzitegien jurisdikziopean egongo dira.

15. Xedapen iragankorra.

“Entitate dinamizatzaileak” eta “entitate parte-hartzaileak” (ikastetxeak eta eragile sozioekonomikoak), 2020ko irailaren 1ean indarrean sartu ziren *“STEAM Sare arautzeko oinarrietan”* aurreikusitakoak, dokumentu honetan aurreikusitako *“Entitate laguntzaileak edo atxikiak”* kategorian berrantolatzen dira.

Ondorio horietarako, lehen aipatutako *“STEAM Sare arautzeko oinarrietan”* izeneko dokumentuaren 12. oinarrian aurreikusitako aldaketa-araubidea aplikatuz, aldaketaren berri emango zaie aipatutako entitate guztiei (dinamizatzaileak, parte-hartzaileak eta laguntzaileak edo atxikiak), aldaketa eragin duten termino eta baldintza zehatzak eta arrazoiak idatziz jakinaraziz, eta aldaketa onartzen dela ulertuko da, baldin eta ez badiote Innobasqueri idatziz jakinarazten uko egiten diotela, jasotzen dutenetik hilabeteko epean.

Epe horretan ukoa jakinarazi ez duten entitate laguntzaileek entitate atxiki izaten jarraituko dute, oinarri hauen ondorioetarako.

* * *



1. eranskina. STEAM Saren sartzeko atxikitze-adierazpena





2. eranskina. Jokabide-kodea.

